Bertaratutako kideak:

**Sonia Rivas Borrell.**
Unibertsitateen ordezkaria
. Nafarroako Unibertsitatea.
**Iosu Mena Sarasola.**
Ikastetxe publikoetako
zuzendarien ordezkaria.
**Mari Luz Sanz Escudero.**
Nafarroan desgaitasuna duten pertsonen entitateen batzordeko ordezkaria (CERMIN).
**Pedro Rascón Macías.**
Aitortutako ospea duen pertsona.
**Pablo Arriazu Amat.**
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria.
.
**Arantza Zuriarrain Iñiguez.**
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
.
**Carmela Muñoz Ventura.**
Ikastetxe pribatuetako
irakasleen ordezkaria (FETE-UGT).
**Lourdes Larunbe Arretxe.**
Ikastetxeen administrazioko
eta zerbitzuetako ordezkaria.
.
**Gil Sevillano González.**
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria.
.
**Josu Reparaz Leiza.**
Nafarroako ikastetxe pribatuen
entitate titularren ordezkaria-Nafarroako

Iruñean, 2020ko azaroaren 25eko 16:33an, Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkura edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia bildu da, telematikoki, Manuel Martín Iglesias kontseiluburu dela, alboan adierazitako kideak bertan direla, eta Antonio Iriarte Moncayola idazkari dela. Honako hau izan da gai zerrenda:

1.- Aurreko bilkuraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.

2. Kontseiluburuaren informazio orokorra.

3.- Hezkuntzarako COVID-19 koordinazio batzorde teknikoa.

4. Nafarroako Eskola Kontseiluaren XXV. Jardunaldiei buruzko informazioa.

5. 2. kapituluaren zirriborroa (NHST eta Eranskina).

6. 3. kapituluaren zirriborroa (NHST eta eranskina).

7 . 4. kapituluaren zirriborroa (NHST eta eranskina).

8. 5. kapituluaren zirriborroa (NHST eta eranskina).

Ikastolen Elkartea.

**Tomás Rodríguez Garraza.**

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria.

.

**María Rodríguez Moran.**

Guraso elkarteen federazioen ordezkaria. (HERRIKOA)

**Laura Sanzol Olleta.**

Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FSIE-SEPNA).

**Begoña Unzué Vela.**

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria.

.

**Mikel Lizaso Odriozola.**

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (LAB).

**José Jorge Lanchas Rivero.**

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE).

**Marta Díez Napal.**

Ikasleen Gurasoen Elkarteen
Federazioen ordezkaria
(SORTZEN).

**Ignacio Mª Iraizoz Zubeldia.**

Nafarroako ikastetxe
pribatuen entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE).

**Maite Pellejero Olcoz.**

Ikastetxe pribatu
itunduetako
zuzendarien ordezkaria.

**Germán Chocarro Garbayo.**

Ikasleen Guraso Elkarteen Federazioen

9. Galderak eta eskaerak.

ordezkaria. BRITILA.

Ezin etorria adierazi dute:

**Cristina Bayona Saez.**
Unibertsitateen ordezkaria
(NUP).

Etorri ez direnak:

**Mª Soledad Garjón López.**
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (AFAPNA).
**Esther Lacasta Pérez-Ilzarbe.**
Toki entitateen ordezkaria.
**Eduardo Mayor Garcia.**
Ikasleen Guraso Elkarteen Federazioen ordezkaria. (CONCAPA).
**Mikel Rodríguez Aguirreche.**
Enpresarien elkarteen ordezkaria.
**Arantxa Ruiz Vidorreta.**
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (STEE-EILAS).
**Jabi Arakama Urtiaga.**
Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria
(Geroa Bai).
**Mª José Anaut Couso.**
Sindikatuen ordezkaria.
(UGT).
**Santiago Álvarez Folgueras.**
Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria (HERRIKOA).

**Ainara González Rubio.**
Berdintasunaren alde lan egiten duten elkarteen ordezkaria.
**Mario Fabo Caleo.**
Toki entitateen ordezkaria.
**Patricia Fanlo Mateo.**
Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (I-E).

**1. Aurreko bilkuraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.**

Kontseiluburuak kideei galdetu die ea egin behar duten aurreko bilkuraren aktari buruzko alegaziorik edo iruzkinik.

Akta onetsi da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

**2. Kontseiluburuaren informazio orokorra.**

Kontseiluburuak labur azaldu du zer parte-hartze izan duen Eskola Kontseiluaren ekitaldi eta bileretan, osoko bilkurak 2020ko urriaren 16an egin zuen azken bileratik. Estatuko Eskola Kontseiluaren bileren berri ere eman du eta, orobat, adierazi parte hartu duela osoko bilkurak 2020ko urriaren 29an egindako bilkuran eta Autonomia Erkidegoen Partaidetza Batzordeak urriaren 13an egindakoan.

**3. Hezkuntzarako COVID-19 koordinazio batzorde teknikoa.**

Kontseiluburuak adierazi duenez, lantaldearen hirugarren eta laugarren bilera egin dira. Horietan, ikastetxeen egoeraren egungo argazki finkoa jaso da, eta ikastetxeetan aurrez aurreko jarduera garatzeko hainbat proposamen aztertu dira.

**4. Nafarroako Eskola Kontseiluaren XXV. Jardunaldiei buruzko informazioa.**

Kontseiluburuak etorkizuneko jardunaldien edukia eta garapena azaldu ditu, eta jardunaldiok zein egunetan eginen diren adierazi du.

**5. 2. kapituluaren zirriborroa (NHST eta Eranskina).**

Kontseiluburuak Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txosteneko kapitulu honen gainean aurkeztutako lau zuzenketak aurkeztu ditu, eztabaidatu eta bozkatu daitezen. Azaldu duenez, Batzorde Iraunkorrak onartu zituen.

Lau zuzenketak aho batez baietsi dira, eta osoko bilkurara bertaratu diren kideek aho batez onartu dute 2. kapitulua.

**6. 3. kapituluaren zirriborroa (NHST eta Eranskina).**

Kontseiluburuak azaldu duenez, kapitulu honen gainean ez da zuzenketarik aurkeztu. Beraz, hura onartzeko eskatu du.

Txostenaren 3. kapitulua onartu dute aho batez osoko bilkurara bertaratu diren kideek.

**7. 4. kapituluaren zirriborroa (NHST eta Eranskina).**

Kontseiluburuak hitz egin du, eta 4. kapituluaren gainean aurkeztutako zuzenketen bozketa osoko bilkuraren erabakiaren esku utzi du. Honako hau izan da emaitza:

Lehen zuzenketa ezetsi dute aho batez osoko bilkurara bertaratu diren kideek.

Bigarren zuzenketa ezetsi dute aho batez osoko bilkurara bertaratu diren kideek.

Hirugarren zuzenketa onartu dute aho batez osoko bilkurara bertaratu diren kideek.

Laugarren zuzenketa onartu dute aho batez osoko bilkurara bertaratu diren kideek.

Bosgarren zuzenketan, Mikel Rodríguezek hartu du hitza, zuzenketaren postura defendatzeko.

Kontseiluburuak adierazi duenez, bere ustez ezetsi egin behar da. Gil Sevillanok ere ezesteko proposatu du.

Ignacio Iraizozek, bestalde, zuzenketa baietsi dadila defendatu du.

Azkenean, bozkatu egin da, eta bosgarren zuzenketa ezetsi egin da. Honako hau izan da emaitza: aldeko 5 boto, 2 abstentzio, eta kontrako 15 boto.

Kontseiluburuak laugarren kapitulua onar dadila eskatu du. Osoko Bilkurara bertaratu diren kideek aho batez onartu dute.

**8. 5. kapituluaren zirriborroa (NHST eta Eranskina).**

Aurkeztutako hiru zuzenketen edukia azaldu du kontseiluburuak. Adierazi duenez, horietan eskatzen den edukia Hezkuntza Departamentuari eskatu zaio eta dagoeneko bidali da. Ondorioz, Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txosteneko 5. kapitulura sartu da, eta, beraz, kapitulu hori onar dadila eskatu da.

Txostenaren 5. kapitulua onartu dute aho batez osoko bilkurara bertaratu diren kideek.

**9. Galderak eta eskaerak.**

Kontseiluburuak azaldu duenez, Nafarroako Eskola Kontseiluko aurreko burua (Aitor Etxarte) zaintza intentsiboko unitatean dago, COVID-19 birusak jota. Laster errekuperatu dadila espero duela adierazi du. Halaber, azaldu duenez, baimena eskatuko dio Osasun Departamentuari, abenduaren 9ko hurrengo osoko bilkura aurrez aurre egin dadin.

Pedro Rascón kontsulta hori egitearen alde agertu da.

Osasun Departamentuari kontsulta egitea onartu da, baiezkoa eman baitute bertaratuek.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, kontseiluburuak osoko bilkurara bertaratu diren kideen parte-hartzea eskertu du, eta bilera bukatutzat eman du 19:20an, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.